

**KABIA foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak honako erabaki hau hartu du 2024ko maiatzaren 24ko ohiko bileran:**

“Gipuzkoako Lurralde Historikoko Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauaren 121. artikulua xedatzen duenaren arabera, foru sektore publikoko entitate guztiek urteko kontuak egin behar dituzte lau hilabeteko epean gehienez ere, ekitaldi ekonomikoa ixten denetik hasita, betiere haiei aplikatu beharreko abiaburuekin bat etorritz.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontabilitate Publikoko Foru Plan Orokorra onartzen duen abenduaren 28ko 51/2012 Foru Dekretuak xedatzen duena jarraituz, urteko kontuek unitate bat osatzen duten ondoko dokumentuak hartzen dituzte barne: balantzea, ondarearen emaitza ekonomikoen kontua, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, diru-fluxuen egoera-orria, aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria eta memoria.

Horiez gain, 2023 ekitaldiko urteko kontuetan sartu dira “2023ko aurrekontuaren emaitza” eta “Aurreko ekitaldietako sarreraren eta gastuen hondarren betearazpena 2023 ekitaldiaren amaieran”.

Abenduaren 22ko 46/2014 Foru Dekretu bidez onartutako KABIaren Estatutuen 14.2 e) artikuluari jarraiki, lehendakariari dagokio urteko kontuen proposamena Gobernu Batzordera eramatea.

Horregatik, KABIaren Estatutuen 10.1.c) eta 27 artikuluetan emandako eskumenak erabiliz, Gobernu Batzordeak, lehendakariak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

**La Junta de Gobierno del organismo autónomo foral de KABIA, en sesión ordinaria celebrada el 24 de mayo de 2024, ha adoptado el siguiente acuerdo:**

“Según el artículo 121 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, todas las entidades del sector público foral deberán formular sus cuentas anuales, de acuerdo con los principios contables que les sean de aplicación, en el plazo máximo de cuatro meses desde el cierre del ejercicio económico.

De acuerdo con lo establecido por el Decreto Foral 51/2012, de 28 de diciembre, por el que se aprueba el Plan General de Contabilidad Pública Foral del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las cuentas anuales comprenden los siguientes documentos que forman una unidad: el balance, la cuenta del resultado económico patrimonial, el estado de cambios en el patrimonio neto, el estado de liquidación del presupuesto, el estado de flujos de efectivo y la memoria.

Además, se han incluido en las cuentas anuales del ejercicio 2023 el “Resultado presupuestario 2023” y la “Ejecución de los residuos de ingresos y gastos de ejercicios anteriores al cierre del ejercicio 2023”.

Atendiendo a lo establecido en el artículo 14.2 e) de los Estatutos de KABIA, aprobados por Decreto Foral 46/2014, de 22 de diciembre, corresponde a la presidenta elevar a la Junta de Gobierno la propuesta de cuentas anuales.

Por todo lo cual, en uso de la competencia que le atribuyen los artículos 10.1.c) y 27 de los Estatutos de KABIA, a propuesta de su presidenta y previa deliberación,

## ERABAKITZEN DU

**BAKARRA.-** 2023ko ekitaldiko urteko kontuak onartzea.

*Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete administrazioarekiko auzien Donostiako Epaitegietan, jakinarazpenaren biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.*

*Hala ere, interesdunek aukera dute horren aurretik aukerako berraztertze-errekurtsua aurkezteko Gobernu Batzorde honi, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen berriazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke.”*

**Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut dagokion akta onartu aurretik, Donostian, sinaduraren datan.**

## ACUERDA

**ÚNICO.-** Aprobar las cuentas anuales del ejercicio 2023.

*El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.*

*No obstante, las personas interesadas, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante esta Junta de Gobierno, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.”*

**Y para que conste, extendo la presente certificación con anterioridad a la aprobación de la correspondiente acta, en San Sebastián, en la fecha de la firma.**